

TTAKUN (H)ERRENKA

Amayak

Z

enbat ustezko amaiera ez ote dizkigute iragarri eta berau iritsi ostean esan diegu geure buruei: “Hau al zen guztia?”. Jose Luisek aipatu ditu zenbait. Gogoan dut nik ere Paco Rabanneren hura, Nostradamusen profezien ildotik munduaren amaieraren berri eman zueneko XX. mendearen hondarrean. Haren arabera, 1999ko abuztuan akaberara emango zen gure mundu maskala, milurteko azkeneko eguzki-eklipsearen ondotik Mir espazio-ontzia Parisen eroriko zelako. Erri-toari jarraiki ezarri nintzen *Muy Interesantek* –edo *Geo* ote zen? edo *Quo?*– banatutako betaurreko bereziak ipinita eguzkiari begirane hamabost urteekin, aski eszeptiko ordurako, pentsatzen domaia litzatekeela adin nagusikoa izatera ez iristea, adinarekin omen zetozen gisa guztietako plazer zein esperientziak galtzea (sic). Mundua deritzanak aurrera egin zuen, ordea, ni heldutasunaren mundu miresgarrira igaro nintzen urte gutxi batzuen ostean, eta esaldien ondoren *sic* ipintzen ikasi nuen.

Zinemaren beraren akaberaz ere ez da berba gutxi egin, edo zinemak berak akabatuko omen zuenaren –nobelagintza, esaterako– inguruan. Ezagun da, telebistaren zabalkundeak zinema-aretoak hustuko omen zituen. Dudarik gabe, ezin esan urteen poderioz gauzak aldatu ez direnik. Donostiako Principe zaharraren oroitzapen lausoa dut, areto handi eta dotore harena, multizine bihurtu aurrekoa. Edo *La señora Doubtfire* ikusi nuen Savoya Gros auzoan edo Amaya zinema Getaria kalean, biak ere desagertuak 90. hamarkadan. Baina ez dakit zertan ari naizen, zeren ttakunak antinostalgikoa izan behar zuen eta horrela bide aski okerretik bainabil. Ez baitira izan zinema-aretoenak aldaketa bakarrak. Hor nonbait entzun nuenez,

DANI BLANCO



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padrón

behialako Hollywoodeko zinema klasikoak betetzen zuen funtzioa telebistarako fikziozko sail arrakastatsuek betetzen dute gaur egun. Auskalo, baina egia da David Fincherek zioena berrikitan, alegia, egun ez dagoela iraganeko zinema-estreinaldiatarako grina larri hori. Prefosta, ez

dira alferrik igaro Internet eta deskargak.

Nobela lurperatu izan dutenak zientoka izan dira halaber. Tom Wolfek abiatutako eztabaida da ezagunetakoa, zeinetan kazetaritza berria izeneko “mugimenduak” nobela hilko zuela aldarrikatu baitzuen. Jakina, bere burua kazetaritza berri horretan kokatu zuen; ez zitzaion gaizki atera jokaldia, arrakasta eta dirua, biak etorri baitzitzizkion tonaka. Hori bai, denborak ematen digun distantziaz bere iragarpenak txiste itxura hartzen du gehiago, gaur egun aski garbi baitago nobela hilik bada ez dela kazetaritza berriagatik izan, alafede.

Iragarpen apokaliptiko horien atzean, sarritan, nartzisismoa ezkututzen da nahiko era baldarrean. Norberak bizi duen garaia, eta are, norberaren eragin historikoa (Wolfen kasua testigu) erabakigarria delako ustea. *Vanitas vanitatis et omnia vanitas*. Inork ez du nahi, agidanez, ustez ezer jazo ez zen Erdi Aro aspergarrian bizi, eta hala, tankera guztietako heriotzak joaten gara jasotzen. Gero ezkututako dugu beharbada halako pose

nostalgiko batekin, eta garai zaharrak zeinen ederrak izan ziren aldarrikatuko dugu, baina benetan atsegin duguna eraistearen testigu –eta ahal dela protagonista– izatea da. Gauza gutxi dago suntsipena baino morbosoa. Non zeunden Berlingo harresia eraitsi zutenean? Non Francoren heriotzaren berri ematean? Zer ari zinen egiten Irailaren 11an? Zer ETB1 itxi zutenean? ■



Iragarpen apokaliptiko horien atzean, sarritan, nartzisismoa ezkututzen da nahiko era baldarrean. Norberak bizi duen garaia, eta are, norberaren eragin historikoa erabakigarria delako ustea